

2002-11-13
kioskoa

Eneko Bidegain

Putin tinko eta Europa herabe

Ahots kritikoak ageri ziren atzoko egunkarietan Vladimir Putinek Bruselan egin bistaren ondotik. **Le Figaro**-k dio Kremingo buruak Washingtonen babesa erabiltzen duela «Txetxenian eskuak aske dituela uste izateko». Putinek Bruselan agertu jarrera kritikatu zuen. «Europar Batasunak bere ustez egin zezakeena egin du, erran nahi baita, gutxi: zenbait ohar giza eskubideez, negoziatorako dei zenbait eta borroka antiterroristan akordio bat». Alta, **Le Figaro**-k EBri «hase-rretzen duten gaiak baztertu nahia» kritikatu zion. «Amets egitea da konpontzen ez diren arazok desagertzen direla».

Liberation-ek kritika zorrotza bota zion EBri. «Europarrek ez dute tutik erran errusiar soldaduek Txetxenian egin gehiegikeriez», salatu du. «Europak Errusiari gogorazi behar dio ez direla gerra kolonialak inoiz irabazten. Arazo txetxeniarra indar salbaiaz konpontzearen konplize izateari uko egin behar dio».

NBEk Iraki buruz duen jarrerarekilarako paraleloa egin zuen **Gara**-k. «Vladimir Putinek ere desafiatu ditu Nazio Batuak. 2000ko apirilean, NBEren giza eskubideen batzordeak batzorde independente baten sortzea galdegin zuen Txetxenian egin salbakerien salaketez inkesta bat eramateko eta Moskuk neurria onartezintzat jo zuen», gogorazi zuen **Gara**-k. Eta hori horrela izanik ere eta nahiz eta ikusi «Gobernuak nolako salbakeriarekin bukatu zuen Dubrovka antzokiko bahiketa», EBko agintariek «terrorismoaren kontrako borrokan batera ekiteko planaren inguruan» Putinekin bat egin zuten salatu zuen.

Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uria

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Igor Sota

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707


Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabiz Monasterioa, 45-13 esk. (Irritzidorra) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

'Euskal Y'-arekin bueltaka

Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imazek atzo adierazi zuenez, Gobernuak *Euskal Y*-aren proiektu eta epeei eusten die, baina prest dago ingurumen eragina murriztuko luketen proposamenak onartzeko. Alegia, EB-IUk joan den astean egindako proposamenak nola-baiteko tokia izan dezakeela iradoki zuen bozeramaileak. EB-IUk esan duenez, berriz, Herri Lan Sailarekin hitzartu zuten ibilbide berria, eta harrigarria da orain Jaurlaritzak agertu duen jarrera. Azken finean, gizartean adostasun nahikorik lortu ez duen proiektu baten inguruan agertzen ari dira tirabira eta kontraesanak. Gizarteak eztabaidan parte hartzea argigarria eta erabakigarria litzateke.



Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imaz.

Besagain, Espainiako Federazioaren babesean

Ez diote utzi Besagain enpresari askoz irtenbide gehiago. Asegarceren eta Asperen Eskuzko Pilota Enpresen Ligak (EPEL) ez zien utzi haren pilotariei Lau t'erdiko txapelketan parte hartzen —ez zuten *ranking*-a errespetatu eta Errandonea, Ariznabarreta eta Goñi I.a kanpora gelditu ziren—. Pilotari horiei eta bigarren mailakoei irtenbide bat eman nahian, Euskadiko Pilota Federazioaren eta Espainiakoaren atek jotzea erabaki zuen Besagaine, «iza-era ofiziala» izango duen txapelketa bat antolatzeko. Euskadiko atek zabaldu dizkie, baina berehala ixteko. Espainiakoak inolako arazorik jarri gabe egin die harrera eta euren babesean ariko dira. Hausnarketa bat merezi du.

Calaisko etorkinen auzia

Saint Paul/Saint Pierre elizaren barruan dauden etorkin gaur kanporatzeko eskatu dio Calaisko alkateak Frantziako Barne ministro Nicolas Sarkozyri. Etorkinak larunbatean sartu ziren elizan eta hilabeteko baimen agiri bat eskatu dute Pas de Calais aldean libre ibiltzeko. Etorkin asko Kosovoko eta Kurdistango iheslariak eta Europako Ekialdeko herritarrak dira. Etorkinek Erresuma Batura joan nahi dute, Londresko legeak Pariskoak baino malgutasun handiagoa eskaintzen baitu etorkinak hartzeko. Lehenago Calais ondoko Sangatteko babesleku zuten aterpe, baina Frantziako Gobernuak Gurutze Gorriak kudeatzen zuen egoitza itxi du.

Euskal Filmtokaren logotipo berria aurkeztu zuten atzo.



Euskadiko Filmtokiaren fundazioa sortzeko bidean

2003. urtean hogeita bost urte betetzearekin batera, aro berri bati ekin nahi dio Euskadiko Filmtokiak. Hasteko, bere irudi korporatiboa berritu du eta hurrengo urratsa fundazio bat sortzea izango da. Egun esku pribatuetan —Euskadiko Filmtokia Elkartearen eskuetan— dagoen ikus-entzunezko ondare aberatsa esku publikoetara pasatzea lortu nahi dute fundazioaren sorrerarekin. Hala gertatzen da herri gehienetan, baina Euskal Herria salbuespena zen orain arte. Fundazioaren zeregina izango da diru iturri berriak lortzea ere, Filmtokiaren egoitza berriko lanak ordaindu ahal izateko. Gas Lantokiko erakina egokitzeko, 10 milioi euro inguru beharko dira.